

Xabier Kintana

Euskaltzaina eta idazlea

Euskal sukaldaritzarik bai ote?

■ Aitortzen dut mahai ona gustatzen zaidala, ene zilbotak aski nabarmen salatzen duenez. Ez naiz, ordea, gourmet mokofinen mailara iristen. Ez dut inongo gastronomi kofradiako kapa dotorerik behin ere jantzeko ohorerik izan eta, ongi jaten ahalegintzen naizen arren, alokairupekoen muga hertsien barruan ibili behar izaten dut, ezinbesteko beharrezanetik bertute eginez. Halere, zertarako uka, euskal sukaldaritzaren, tradizionala eta berria atsegin ditut, txinatarra, katalana, georgiarra eta arabiarra ere bai, italiarrari ez diot muzinik egiten eta japoniarra dastatzeko aukera izan dudanean, gustatu zaidala esan behar.

Ez ditut hain gogoko, egia esan, ingelesa, errusiarra —kaviarra salbu— eta frantsesa, azken hau, batez ere, prezio-kalitate kontuan erabat desorekatuak dagoelako, hots, frantziar sukaldaritzaren onak dastatzeko gataste behar den diruarekin Euskal Herrian sekulako oturuntza jan genezakeelako, musikariak eta guzti. Eta ene poltsikoa behintzat ez dago horretarako.

Baina zertarako kanpoko jakien bila joan, ordea, etxeok hain bikainak ditugunean? Munduko arrain-itsaskirik hoberenak gure kostetan arrantzatzen dira, barazkiak fresko bezain zapoetsuak ditugu, behiki, txerriki eta bildoskitan kalitate okela onak, perretxiko eta fruitutan ez gabiltza urri eta, itsasaldeko txakolinak, Irulegiko ardoak, Nafarroako Erriberakoak eta Errioxar Arabako mama goxoak ahortzi gabe, eta, hori bezain inportantea, markatik kanpoko sukaldariak etxean bertan izanik, tentazio gutxi izan dezake euskaldunak koilara inoien lapikoan sartzeko.

Eta gure sukaldarien fama ez da, soilki, gure abertzalekeria txatxu eta itsuak sorturiko lilura hutsala, nazioarteko epaimahaietan —eta mahai-epaieetan— hala erabakirik uste objektiboa baizik, Espainian, Katalunian, Frantziaren eta Estatu Batuetan euskal jatetxeek lortu duten arrakasta ezaguna lekuko.

Kontua seriooki aztertzeke da, era honetako ospeak ez baitira be-

rez eta bat-batean sortzen. Orainsu jakin dugunez, Arzak jaunak bere sukaldean esperimentazioa eta ikerkuntza talde bat omen dauka, era askotako osagaiak eta zapoak elkarrekin nahasiz jaki berri eta ezustekoak sortzen ahalegintzen den jendea, puntako teknologiaren bila ari diren enpresa hobereetan bezalaxe. Izan, horixe da profesionaltasuna, jaun-andreok. Zer bai!

Gure jatetxe onenetan tratua ere, hala-koxea izaten da: ongi apainduriko zerbitzariak, larru beltzez jantzitako eta zilarrezko *tête-vin*-ez hornituriko sommelier dotoreak, portzelana bikaineko plater marraztu berotuak; koilara-sardeska distiratsuak eta eskuzapi brodatuak, loreak eta kandelak, luzuzko eskenatokiari ezer falta ez dakion.

Halere, gure sukaldaritzak, sukaldaritzaren berriak batez ere, bere akatsa dauka, erroteriko falta larria, gure sukaldarien trebetasunaz, fineziaz eta gaitasunaz, tamalez duda eragiten didana.

Arte-lan guztiak badute beren egilearen zigilua, beren marka berezia, beren jatorria lau haizeetara salatzen dien ukitua. *Canard à l'orange*, *soupe à l'oignon* edo *pot-au-feu* entzutean mundu guztiak daki frantses sukaldaritzaz ari garela, italiarren *osso buco*-k edo *pizza carbonara*-k Italiako aireak, *botifarra amb mongetes* entzuteak Katalunian, *txop sueia*-k Txinakoak edo *kuz-kuz*-ak arabiar usainak dakarzikiguten legez. Horiek oro, holaxe, beren jatorrizko deitura exotikoa eta guzti, ikasi ditugu, zer nongoa

den argi gera dadin. Eta gure orain arteko sukaldaritzaren tradizionalean *porru-salda*, *bakailoa pil-pilean*, *marmitakoa*, *piperrada*, *txapiroak beren tintan*, *kokotxak*, *txangurro erre*, *intxaur-saltsa* edo *Gernikako hori-baltzei* ere bertako kutsua darie, etxeke lurri-na, betidanik halaxe ezagutu eta erazagutu dira eta.

Inoiz hizkuntzaz kanpoko kultur ekoizpenez hitz egin da, hots, literaturarekin zer ikusirik ez duen sorkuntzaz, eta horietako bat, zer esanik ez, sukalde-maisuena da. Baina zapoak, koloreak, soinuak edo formak bezala, beste arte batzuei doazkien arren, guztiak dute hizkuntzarekin lotura puntu bat, bakarra baina garrantzi handikoa: izena, jendeaurrean obra aurkezteko eta erakusteko modua, horretarako bederen hizkuntza erabili behar izaten da eta. Hizkuntza konkretu bat, eskuarki egilearena, bere jatorrizko nazioaz lotsatzen ez bada behintzat. Eta txinatarrek badakite jaki gozo batek nahitaezko lagun duela izen egoki eta poetikoa, iradokizun organoleptikoen xuxurlari. Horregatik hor ezin etor naiteke bat, gure «euskal» sukaldari espainoldu edo frantsesestuekin, beren produkzio osoa aspaldian erdara hutsez aurkezten digutenean, beren herritarren jatorrizko mintzairaz lotsatzen direlako.

Ez, esan dezagun garbiro. Euskal Herriko sukaldariak, beste profesional askok bezala, ez dute egiten gure Herria eta gure kultura prestigioatzeko egin lezaketen guziti. Itxu-

raz, euskaldun izateaz ahalketzen dira eta badirudi euskaraz dakitela ere ezkutatu nahian dabilzala, euskara zerbait lotsagarri balitz bezala. Horregatik beren produktu bikainak erdaraz bataiatuak aurkezten dituzte, deskafinaturik, erdaldunen belarriak haiek euskaraz entzutean eskandaliza litezkeelako aurriritzi pusilanime memeloz. Eta ez ditut hitzak erretiratzen; memeloz, bai, memelo hutsak direlako.

Kalitatea dagoenean inork ez du Frantziako Champagne bikaina edo Alemaniako Rhin-eko ardo ona arbuaitzen, erabat frantsesez edo alemanez etiketaturik datozelako argudioarekin. Nori burura dakioke Euskal Herrian, Katalunian edo Espainian, euskal jatetxe batera doanak jakien karta edo txakolina euskaraz ere egoteagatik bezeroek handik alde egin dezaketela? Makina bat botila albariño ikusi dut galego hutsez etiketaturik, hemen inolako problemarik gabe saldurik. Serioagoak izan gaitezen, jaun-andreok, kalitate ona dutelako lortu dute arrakasta gure artean izozki batzuek, Häagen Dazs bezalako izen arrotz eta esangaitza gorra behera, euskaraz euskal sukaldaritzako bezeroak ikaratuko dituela sinets dezagun.

Ea behingoz, gure «euskal» sukaldari erdaldundu horiek herritarkio eta euskaldunago agertzerantz ausartzen diren. Etxeparek «euskaldun den gizon orok altza beza buru» esan zuen. Axularrek nor bere mintzairaren arabera ezagutzen dela nongoa den gogoratu zigun, espainolez mintzo dena

dela Espainiako eta frantsesez ari dena, aldiz, Frantziako. Eta herrisaeraren arabera, izena duen guztia omen da, gogoan izanik, erdal izen hutsa daraman sukaldaritzaren neuk behintzat, ezingo dut euskal sukaldaritzat hartu, beren herritarren hizkuntzaz lotsatzen eta errespetatu nahi ez gaituztenek ez baitute merezi, ordainez, herritarrok errespetatu ditzagun. Pentsatzen baitut, Chez Maxim's fama bere plateri ingeles izan hutsak jarri balizkie, duda serioak lituzketela paristarrek haren frantsesetasunaz. ■



Xabier Isasi

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Euskarari bultza

■ Eremu urriko hizkuntza, hizkuntza minorizatua, hizkuntza gutxitua, hizkuntza gutxiagotua, hizkuntza gutxietsia, gutxiengoaren hizkuntza, erabilera murrizteko hizkuntza, menpeko hizkuntza, horiek dira, besteak beste, euskarari atxikitako edo egoztitako izendapenak. Izendapen bakoitzak, zeinek bere esparrutik, euskararen egoerari buruzko alderdiren bat azpimarratzen du. Euskara bakan batzuen hizkuntza, lurraldez hedapen mugatukoa, funtzio jakinera eta soilik horietako balio duena, eta antzekoak erator litezke euskarari ezarritako izendapenetatik. Egia esan, horrela da. Horrela da eta horrela izango da euskaldunok euskarari beste estatus bat ematen diogun artean.

Hizkuntzak, zentzu hertsian, ez zukeen adjektiborik behar. Euskaraz ere ez, jakina. Indarrean dauden izendapenek eurek euskararen egoera deskribatzeaz gainera, euskara bera mugatu egiten dute. Eta mugak kendu edo gainontzeko garai iritsi da. Euskaldunok ondo baino hobeto ezagutzen ditugu mugak dakartzanak, haien ondorioz trebatu gara gaueko lanetan, halabeharrez. Etekinak atera ditugu eta irauteko balio izan digu, ez da gutxi. Baina garaia aldatu da, euskaraz ez du mugarik behar, euskara hizkuntza bat besterik ez da. Hizkuntza soila dena, izan daitekeena eta nahi duguna.

Gaueko lanetan ibili garen euskaldunok garai berriotan eta jarduera berrietan ego-

kitzen jakin behar dugu. Sekulan ez da horrenbeste euskaldun bezainbeste euskaldun alfabetatu eta eskolaturik, ezezaguna da, orain arte, euskalgintzan ematen den batasuna. Egoera ona da, zalantzarik gabe. Zenbait arazo zahar gainditzear gaude, trukean, oster, problema berriak datozkigu.

Euskaldungoa zatituriko gizataldea da, hizkuntza komunitatea izatera iritsi gabea. Zatitua administrazio eta lurraldez, bai, baina baita gizaldiz eta ikusmoldez ere. Gaurko euskaldun gehienak gazteak edo oso gazteak dira, bakan batzuk helduak eta multzo esanguratsua adin handikoak. Banaketa horretan islatzen da, gehienbat, euskaldungoaren haustura. Zatiketa guztiak gainditu behar ditugu, baina aurre-

aurrenik, nire ustez, zahar/gazte banaketa horri irtenbide egokia bilatu behar diogu. Bide bakarra dago, garapenerako erantzukizun zama. Zaharrek, berriz, haien jakituria eta esperientzia helerazi behar diegu gazteei, zuzen-zuzenean ez baitago helduen zubirik.

Hurrengo menderako erronka euskaldunen hizkuntza komunitatea eraikitzean datza. Hizkuntza komunitatea euskara biziberritzeko ezinbestekoa baita. Ari gara, horra hor, bestela, Kontseilua, batasunaren ikur eta hizkuntza komunitatearen isla. Amaitu dira euskararen aldeko gaueko lanak, jalgiz dezagun mundura!

Abenduaren 26an ezin dugu huts egin. Gure konpromisoa da. ■